

Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilaren Adierazpena

1. Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillak abenduaren 9an Oionen gertatutako eraso matxistaren gaitzespen irmoa adierazi nahi du.
2. Gogoan izan honelako eraso sexistak gure gizarteko esparru guztietan gertatzen den egiturazko kausako indarkeria matxistaren isla argia direla. Emakumeen aurkako indarkeria emakumeen duintasunaren eta osotasun fisiko eta moralaren aurkako eraso larria da, eta, ondorioz, haien giza eskubideen urraketa larria.
3. Horregatik, bere erantzukizuna onartu du eta indarkeria matxista mota guztiak desagerrarazteko berdintasun-politikekin lan egiten jarraitzeko bere konpromiso politikoa berresten du.
4. Herritarrei inolako eraso sexistaren konplize ez izateko eta indarkeria matxistaren edozein adierazpenen aurrean jarrera aktiboa izateko eskatzen die, zigorgabetasuna eta zero tolerantzia erakutsiz. Guztion ardura da, gure eragin-esparruetatik indarkeria desagerrarazteko borroka egitea, denoi eragiten digun gizarte-arazoa baita.
5. Elkartasuna adierazten dio biktimari eta gertueneko inguruneari, eta babesa eta hurbiltasuna eskaintzen die.
6. Elkarretaratze isila deitu du astearte honetarako, **abenduak 10, 12:00etan Oiongo Udaletxearen aurrean**, eta herritarrak animatzen ditu bat egitera bertan parte hartuz, bai eta hainbat elkartek antolatutako beste ekitaldi batzuetan parte hartzera ere.